

AURREKARIAK

*BERGARAKO ESKOLA ADINEKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA.
HASTAPEN EREDUAREN OINARRI POLITIKOAK.*

SARRERA.

Bergarako eskola adineko jarduera fisiko eta kirolean eragile askok hartzen dugu parte. Askotarikoak eta denak ezinbestekoak. Agiri honek askotariko eragile horien jarduna batu eta antolatuko dituen oinarrizko kirol politika irizpideak jasotzea du helburu. Soilik, desberdinen arteko adostasunarekin lehenetsiko da kirol hastapen politikaren ardatza izan behar duen interes gorena: udalerriko ume eta nerabeak.

OINARRIZKO ORDENAZIO ADOSTUA BALIABIDEAK NORABIDE BATERATURANTZ IPINTZEKO.

Jarduera fisikoa eta kirola hezigarri, osasungarri, berdinzale eta bizi ohituren sustatzaile izan daiteke. Baina, baita kontrakoa ere. Erabateko aukera askatasunean oinarritzen diren kirol politikek arrakalak areagotu eta aurkako albo kalteak sustatzen dituzte.

Horretarako, jarduerak eta ezartzen diren baliabideek, haurren garapen integrala, ekitatea, aukera berdintasuna eta beren eskubideen babesa jomuga bezala izan behar dute.

Egungo Euskadiko kirol araubideak oinarrizko marko bat ezartzen duen arren, udalarentzat ezinbestekoa da adin hauetan diharduten eragileek arteko oinarrizko adostasun bat lortu, jaso eta herritarrei aditzera ematea. Agiri honek eskola adineko jarduera fisiko eta kirolaren herri ituna izan nahi du. Kirol hastapenaren herriko ituna. Adostasunean oinarritutako itun horrek emango dio udal ekintzari legitimitatea baliabideak norabide zehatz batean antolatu, batzuk lehenetsi eta beste batzuk ezesteko.

ABIAPUNTUA.

Kirola bera ez da helburua. Kirola haurren interes gorena lehenetsi eta sustatuko duen baliabide bat izango da. Beraz, Kirola bera da hurrei egokituko zaiena eta inoiz ez, alderantziz.

Beraz, hastapen kirol politikaren oinarria umeak eta nerabeak izanik, Bergarako eskola adineko kirol politikak ez dira soilik kirolekoak izango. Beraz, eta printzipio gidari horren ildotik, hastapen kirol politika ez da soilik kirol eragileekin (udal kirol zerbitzua, klubak eta gimnasioekin) eraikiko, nahitaez, ezinbestean, udaleko beste sail (berdintasuna, gizarte zerbitzuak, euskara,...) eta herriko kirolekoak ez diren eragileek partaidetza exijituko du.

PROGRAMA ANTOLAKETA.

2/2023 legeak, eskola adineko jarduera fisikoa eta Kirola, hiru etapatan antolatzen ditu. Herri itunak ere etapa horiek ere aintzat hartuko ditu.

- **Haur hezkuntzako etapa.** Legearen garapearen zain, etapa honetan jolas libre sustatzeko ahalegina egingo da. Kirol jarduera antolatuak gutxietsi eta espazio publikoaren erabilera ludiko eta autonomia sustatuko da. Entrenamendu eta kirol irakaskuntza antolatuen presentzia ahalik eta gutxiena izango da.
- **Lehen hezkuntzako etapa.** Oinarrizko eta ezinbesteko kirol eragile nagusia IKASTETXE KOMUNITATEA izango da, zeinetan klaustroak gurasoekin batera lehentasunezko foru-programen garapenean jardungo duten udalarekin batera. Etapa honetan, ikastetxeko ondorengo kirol programak izango dira etapa honetako erreferente eta lehentasun:
 - **Ur inguruneari egokitze irakaskuntza.**
 - **Jolashezi programa.**
 - **Multikirol programa (EKI estrategia eta EKE taldeak).**
 - **Mendizaletasun programa.**Etapa honetan, klub en egitekoa ezinbesteko izango da:
 - Batetik, ikastetxean egiten diren irakaskuntzak osatuko dituztelako, inoiz ez ordezkatu.
 - Bestetik, eta hegemonikoak ez diren kirol eta jarduera fisikoen aukera berdintasuna bermatzeko asmoz, praktika minorizatuak ikastetxeko programetan presentzia izan beharko dute kirol ekosistema aberatsa izateko. Baita ere, Kirolak ez diren bestelako jarduerak fisikoak ere: gorputz adierazpena, jolas eta praktika autonomia espazio publiko eta natura eremuetan, dantza akademiak,...
 - Batera edo bestera, kirol elkartegintzako eragileak zein bestelako jarduera fisikoak sustatzen duten ekimenak ere, eskola adineko herriko programan parte hartu beharko dute, berariaz sortzen diren kontseilu edo bideetatik.

Bergarako Eskola Kirola: Herri Ituna

2025eko irailaren 11an, Bergarako lehen hezkuntzako ikastetxeak, hainbat kirol elkarte, talde politikoak eta Bergarako Udalak herriko kirol eragile nagusiek Eskola Kirolaren Herri Ituna sinatzen dugu, Bergarako haur eta nerabeen garapen integrala eta osasuntsua sustatzeko helburuarekin.

Itun honen bidez, sinatzaileek konpromisoa hartzen dugu jarduera fisiko eta kirol hezigarri, osasungarri eta berdinzale bat garatzeko, haurren interes gorena erdigunean jarrita, Bergaran aurten arte bultzatu den MULTIKIROLA eredua bultzatzen jarraituko dugula Herri Itunaren bidez, ondorengo puntuak adostu ditugu:

- Multikirol programaren babesa: 6-12 urte bitarteko haurrek kirol anitz ezagutu eta esperientzia aberasgarriak bizitzeko aukera izango dute.

- Herriko kirol elkarteen inplikazioa: Kirol elkarteek antolatzen dituzten Kirol Eskolatan parte hartzen duten haurrek, Multikirolean parte hartzea lehenetsiko da, herriko interes orokorraren alde eginaz.






- Udalaren babes instituzionala: Itun honek Udalean dauden alderdi guztien babes osoa du.

Ituna, Bergarako kirol politikaren oinarri izango da, urtez urte automatikoki luzatuko delarik, hurrengo lau urtetan bestelako akordiorik hartu ezean.

Herriko kirol elkarteek, udalarekin elkarlanean, lanean jarraituko dute haurren ongizatea eta garapen integrala bermatzeko, kirola baliabide hezigarri gisa ulertuta.

Bergarako Eskola Kirola kontseilua.

Bergarako Eskola Kirola: Herri Ituna

ENTITATEA	SINADURA
Angiozar eskola	
Aranzadi ikastola	
Mariaren Lagundia ikastola	 Nagore M
San Martin eskola	
Antxintxika triatloi elkarte	
Bergara igeri elkarte	
Begarako Shotokan karate	
Beti Busti elkarte	
BKE eskubaloia	
BKE futbola	
BKE pilota	
BKE saskibaloia	
Burdinola elkarte	
Pol Pol MT	
Begarako Udala	
EAJ/PNV	
EH Bildu	